



MUSIKAGELA FEST III

Hiriko taldeen jaialdia Intxaurrondo Kultur Etxera aldatu da

Musikagela Fest III hiriko musikarien jaialdia ekainaren 25ean izango da eta egun batean zehar hainbat musika-banda eta estilo bilduko ditu.

Datozen egunetarako euri aurreikuspena dela eta, Intxaurrondo Kultur Etxera aldatuko da jaialdiaren kokapena eta ez da egingo aurrez iragarritako Sagues-Tomas Alba plazan

Emanaldiek iragarritako ordutegi bera mantenduko dute eta **larunbateko eguerdi eta arratsalde-gau orduetan banatuko dira. Sarrera doakoa** izango da aretoa bete arte eta **taberna zerbitzua** eskainiko da bertaratzen direnentzat.

Lehenengo edizioa 2018an egin zen, Loiolako Erriberako Oroimenaren Lorategian, eta bigarrena, 2019an, Amara Zaharreko Easo plazan. Pandemiaren ondorioz hiriko plazetan bi urtetan ezin egon ondoren, jaialdi ibiltaria itzultzekoa zen Gros auzoko txoko ederrenetariko batetara. Tamalez, eguraldi aurreikuspen aldakorraren aurrean, ezingo da bertan egin.

Aldiz, tokiko taldeen jaia bertan behera utzi aurretik, Musikagelak ekitaldia zerbitzuko taldeen kontzertu areto nagusira eramatea erabaki du. Jaialdia kultur etxeen sarearen eguneroko lanaren adibide argia da: herritarrengandik hurbil dauden ekipamenduak izanik, egoera ezberdinetara egokitu eta hiriko kultur programazioei bestelako begirada eskaintzeko gai baitira.

Hirugarren edizio honetako kartela **9 emanaldik** osatuko dute. Urtean zehar Musikagela zerbitzuak kudeatzen dituen lokaletan entseatu edo kontzertu-zikloetan parte hartu duten **8 tokiko taldeez gain**, rock & blues munduan ezaguna den **Gonzalo Portugal bilbotarraren talde gonbidatua** bertan izango da.

Jaialdia **Dkluba** kontzertu-zirkuituaren baitan antolatzen da eta Musikagela osatzen duten edo zerbitzuan parte hartu duten musika-proiektuak babesteko eta ikusarazteko helburua du. **Donostia Kulturak 2004az geroztik eskaintzen duen udal-zerbitzuak** Egian eta Intxaurren ondoan entsegu-lokalak kudeatu eta kontzertu-zikloak, ikastaroak, tailerrak, master class-ak, mailegu-materiala (zuzenekoa eta grabazioa), aholkularitza eta ekimenak antolatzen ditu hiriko musika-jarduera bultzatzen eta dinamizatzen laguntzeko.

Donostia Kulturatik ikusleen arreta erakarri nahi dugu tokiko talentu musikala erakusteko asmoarekin hiriko taldeei jaialdi batean parte hartzeko aukera eskainiz, kalitatezko eszenatoki batean eta aire zabalean beste hainbat bandekin joaz. Zerbitzuko taldeentzat entsegu-lokaletatik haratago ikusgarritasuna lortu eta bertako musika eszenan proiektatzeko aukera paregabea da.

Eguneko jaialdia da eta bi zatitan banatuko da: lehen zatian eta *aperitif* gisa, *Badmintones*, *El pingüino Hippie*, *Aphaxia* eta *Big Bob Railroad* arituko dira eguerdiko 12:00etatik 14:00etara.

Bigarren zatiari arratsaldeko 18:00etan emango zaio hasiera eta gaueko 22:00ak arte luzatuko da Nuria Culla, Dos, Pelax, La Ola Maldita eta Gonzalo Portugalen rock taldearen emanaldietaz gozatzeko dugularik.

ORDUTEGIAK ETA HURRENKERA

KONTZERTUAK

- 12:00 BADMINTONES
12:30 APHAXIA
13:00 EL PINGÜINO HIPPIE
13:30 BIG BOB RAILROAD
- 18:00 NURIA CULLA & BAND
18:30 DOS
19:00 PELAX
19:45 LA OLA MALDITA
20:30 GONZALO PORTUGAL & BAND

BADMINTONES

Bikote honek elkarrekin urteak daramatzen arren, proiektu honen jatorria pandemia hasi aurreko egunak dira. Eragin desberdinetako soinuak nahasteko post-punk oinarri bat sortzea izan zen ideia nagusia. Denbora luzez lokaletik irten gabe egon ondoren, euren lana partekatzeko gogoia dugu.

Mikel Bengoechea- Gitarra eta ahotsa & Jon Mikel Sorarrain- Bateria

Instagram: <https://instagram.com/bad.min.tones>

APHAXIA

Musikaren adar desberdinetan hezi diren taldekidak 2020 urte amaieran elkartzea erabaki zuten. Eragin askotariko musika jotzen dute, oinarrian rock eta raparen ildoak segituz, eta guzti horren

atzetik bizitzarekiko hausnarketa sakona eragiten duen hitzekin. Pixkanaka auzoko eszenatik irten eta leku berrietan jotzeko prest daude.

Asier Galparsoro - Ahotsa & Danel Larrañaga - Gitarra & David Vidaurre - Gitarra & Erik Urbieta - bateria & Iñaki Olaskoaga - Baxua

Instagram: <https://www.instagram.com/aphaxia/>

EL PINGÜINO HIPPIE

Poloetako eskualde izoztuetan doinu ultrasoniko karrankariak entzuten dira. **El Pingüino Hippié**-ren musikak, bere bibrazio akustikoekin, izoztutako uraren molekulak bereizten ditu, betiereko izotzetan pitzadura ikargarriak eraginez. Hori ez da arriskutsua, oso arriskutsua baizik!

Santi Diaz - Gitarra eta ahotsa & Chivas - Gitarra & Urko Urbieta - Baxua & Pablo Fuentes - Bateria.

Instagram: <https://www.instagram.com/ephrock/>

BIG BOB RAILROAD

Big Bob Railroad blues-folk bikote gipuzkoarrak Louisianako zingiretara garamatza bere EP berrian: **1, 2, SWAMP!**. Taldearen hirugarren lanak abesti laiotz eta astunak dakarzkigu, malenkoniaz tindatuz diskaren lau abestietan aurkeztutako paisaia lokaztuak. Lehen singlearen bideoklipa, "Denbora Ez Da Gelditzen", ikusgai dago plataforma digitaletan. Berriro ere Unai De Andrés arduratu da grabaketa eta produkzioaz, ikuspuntu ilunago bat emanez taldearen soinuari dobro distortsionatu eta ahots urratuen bitartez. Grabaketan ere Nagore Etxaberen (Makulu Ken, Mäirü, Antuxuna ta Patx...) parte-hartzea izan dute perkusio lanetan.

Aitor eta Josuren hitzetan, konposaketa prozesua kontzeptu bakar batean oinarritu nahi izan dute lan berri honetan. Mississippi Fred McDowell eta R. L. Burnsiden hill country bluesa eta Louisianako zingiren irudiak abiapuntutzat hartuz, paraje haien bakardadera garamatzate slide soinuen bitartez.

Aitor Iburguren – Gitarra & Josu Etxeberria - Ahotsa / perkusioa

Big Bob Railroad <https://bigbobrailroad.bandcamp.com/album/1-2-swamp>

YouTube: <https://www.youtube.com/watch?v=54iiE-UOqAo>

Big Bob Railroad - Denbora Ez Da Gelditzen <https://www.youtube.com/watch?v=Lcd895L7sy0>

Instagram: <https://www.instagram.com/bigbobrailroad/>

NURIA CULLA & BAND

10 urte baino gehiago bakarleri eta gitarra-jotzaile (Autumn izengoitiarekin) ibili ondoren, artista donostiarrak etapa berri bati eman dio hasiera. Donostiako kontserbatorio profesionalan eta Musikenen ibilbidea luzea duen Nuriak 2018ko irailean argitaratu zuen bere lehen EPA: *Lluvia de marzo en Venecia*, 4 abestiz osatua, bi ingelesez, bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz.

Orain lehen aldiz beste musikari batzuek lagunduta itzuli da eta iada proiektu berriko bi single aurkeztu ditu: *I used to* eta *Casi nada*.

Nuria Culla - Ahotsa/Gitarra elektrikoa & Gonzalo Encinal - Teklatua & Jesús Pérez - Baxua & Edi Saborit Bateria

YouTube: <https://www.youtube.com/c/NuriaCulla>

Spotify: <https://open.spotify.com/artist/6QH0GaYucRi4Dkqrf0QQPa?si=hn1z52VASRqoxQdnUvcCOW>

Instagram: <https://www.instagram.com/nuriacullamusic/>

DOS

Sergio Rodríguez, *Yeyo drummer*, musikariak Alejandro Haro saxofoi jotzailearekin batera duen proiektua da DOS. Sentitzeko eta gozatzeko musika egiten duten saxo eta bateria *power duo* bat. Bere lehen EPak *„Súper”* (2017), harrera bikaina izan du eta DOSeK hainbat aintzatespen eta sari jaso ditu, hala nola Accelerator Fund (ICMP), talde egoiliarra (Musikagela), tokiko taldeen hautaketa (56 Jazzaldia), Hileko Artista (The Hub), Musika Proposamen Berri Onena (IDARTES), besteak beste.

EPa ezagutzera emateko biran, DOSeK kontzertuak eman ditu hainbat eszenatoki eta hiritan, hala nola Jazzaldian (2021), Tabakaleran, Forum Fnac-en, ¡BE! Dkluba, Etxekalte, Alboka (Donostia), 3Taberna (Tolosa), ICMP (Londres), Villamayor Antzokia eta Libélula Dorada Jaialdia (Bogota)... Gaur egun lan horren promozioarekin jarraitzen du bainan ekainean bigarren EP-a aurkeztuko dute.

Sergio Rodríguez Yeyo *drummer*- Bateria & Alejandro Haro - Saxofoia

<https://dosmusika.com/>

Instagram: <https://www.instagram.com/dosmusika/>

Bideoa (Intxaurren K.E.-an grabatua): <https://www.youtube.com/watch?v=KI5ACv1gBFI>

YouTube DOS: <https://www.youtube.com/channel/UCD81WVra22RqIYsk0FB0d3Q>

PELAX

Unai Pelayo donostiarra da **Pelax**. 2013ko azaroan hasi zen lehen bakarkako emanaldiak eskaintzen, bere ahots gordinaz eta gitarra elektriko zikin batez baliaturik. Hilabete batzuk aurrerago, 2014ko martxoan, bere lehen EPa kaleratu zuen, *Pillote giko saioak* eta jarraian *Bi anai* (2014) eta *Cowboy's Orchestra Saioak* (2015). Dinamika geldiezinean dagoela, 2019ko maiatzean izenik gabeko hirugarren lan luzea argitaratzen du, eta urte bereko irailean, laugarrena, bien artean disko bikoitz eta izenik gabekoa osatuz. Talde sendoa edukitzeak ematen duen egonkortasunari heldurik, bandak askatasunez esperimentatzeko bidea hartzen du. Rock progresibo usaina dario oraingoan ere Iñigo Irazokirekin *Atalan* grabatutako lan bikoitzari.

Azken bi urtetan *Burrundaria* (2020) eta *Bi burrundara* (2022) disko instrumentak argitaratu ditu, inprobisazioa eta esperimentazioa jorratzen dituelarik. Egun bakarka zein rock bandarekin igotzen da agertokietara.

Unai Pelayo - Gitarra / ahotsa & Andoni Olaetxea - Gitarra & Iker Vazquez- Bateria & Iñigo Ozaeta - Baxua

<https://baliodute.eus/pelax>

Vídeo Youtube: <https://www.youtube.com/watch?v=Jq7Mi9hHxb8>

LA OLA MALDITA

La Ola Maldita Surf musika instrumentaleko banda 2021eko apirilean sortu zen gauza berriak probatuz entsegu eta barre artean. Bateria Oscar Retegi, gitarran Manuel Brion eta baxuan Arantxa Lizarazu daude. Pandemia funtsezkoa izan da taldea definitzeko, energia eta erritmo txute bat behar baitzuten. Gustukoen dituzten estiloak rockabillytik jazzera doaz, metala eta beste erritmo batzuk baztertu gabe. Asko gustatzen zaie egiten dutena: hezurak mugitu eta ondo pasa musika jotzen.

Aranzazu Lizarazu- Baxua & Oscar Retegi - Bateria & Manuel Brion - Gitarra

Instagram: <https://www.instagram.com/laolamaldita/>

GONZALO PORTUGAL

Gonzalo Portugal Bilbon jaiotako musikaria da. 16 urtez *Last Fair Deal* taldearen buru izan ondoren, eta hiru disko atzean dituela, beste urrats bat eman du bere ibilbidean eta bakarkako proiektuari ekin dio. Bere abentura berriko lehen EP aren izenburua ezin aproposagoa da: *On My Way*. Larrabasterran grabatu zen 2022ko urtarrilean, Saul Santolariaren (*Sweet Saul Studio*) agindupean, eta Gonzalok berak ekoitzi zuen. Blues hizkuntzaren ikuspegitik estilo ugari erakusten ditu. Bere hiru konposiziok eta *Rollin 'and Tumblin'* blues tradizionala berrikusten duen abesti batek osatzen du.

Urteetako ibilbidean eta *Landslide*, *Bluebird* edo *Last Fair Deal* goraiatuak bezalako proiektu musikaletako lanari esker gero eta ospe handiagoa lortu duen figura bat da. Ohikoa da bere izena areto txiki, pub eta jaialdietako karteletan edo diskoetako kredituetan aurkitzea. Formatu akustikoan edo elektrikoan, beste batzuekin elkarlanean edo bakarka ikusleen aurrean, beti gitarrari besarkatuta, beti kalitatezko rock eta bluesa arnastuz.

Gonzalo Portugal - Gitarra eta ahotsa & Israel Santamaría - Teklatuak & Mikel Azkargorta - Baxuak & Iñigo Elexpuru - Bateria.



Single Gonzalo Portugal <https://www.youtube.com/watch?v=ez8qMP-gEQ0>

Spotify: <https://open.spotify.com/artist/3BJqa7pq4E6XoaneAVCEVy>

Canal YouTube: https://www.youtube.com/channel/UCwOeNUC5MjTJCJC4YEZd_Xw

Informazio gehiago:

kulturekintza@donostia.eus

943 48 38 40